ANGELUKO IKASLEAK.

OSOGUNEKO ERAKASKERA

1996 - 97 IKAS URTHEA.

# HEMEZORTZIGARREN ERAKASPENA · 35

## ELHEKETA : HASTE HUNTAKO SOLAS-GAIA.

1. Murillo norat joan zen gaxtakeria egin-eta?
2. Nor joan zen jandarmeriarat?
3. Noiz tenpexartu zen Leonen ama?
4. Gero zer billakatu zen Murillo? Eman xehetasunak.

Piarres

## (II) MARIA ZAHARRA 6

Biharamunean, Senpere Moleresencko bordariaren andreak (Gixonkieneko Leonen amak), bere aldateirat jautsi zenean, aldatei hartan etzanik ikusi zuen gizon bat, leher egina, eta gordeka bezala herrestan zabilana. Zangoko asikiari ohartu othe zitzaion? Ez nakike erraiteko, bainan, nola, bezperaz geroz, Sarako izigarrikeriaz baizik ez baitzen nehon solasik, gogorat jin zitzaion: *Murillo* zuela han, bere aintzinean. Galde eta galdeka eman zitzaion, eta eskuetarik ...s joana zela gizonak erraitearekin, urrikari ukan balu bezala, goiti sukalderat lagundu zuen. Eta gero, alegia eta su handi baten moldatzen ari, Leon, zortzi urtheko bere muttikoari ahapetik manatu zioen: zohala* laster jandarmeetarat, eta erran zezoten: Murillo, kolpaturik, Moleresenean zutela; laster ethor zitezen beraz!!

Joan zen haurra, eta, hura berriz ethorri artean, bere lau urtheko bertze haur bat lagun, gizon hiltzalearekin bakar bakarrik egon zen bihotz handiko emaztekia! Atsegin hartu baitzuken, hatik, oren-erdi luze baten buruan ethorri zirenean jandarmak, eta ongi mañotaturik Murillo ereman zutenean! Orduan aldixartu[16] omen zen ama gaixoa.

Biharamunean, Saralat ereman zuten gizon hiltzaile higuina. Sekulako jendea bildu zen alde orotarik, eta mehatxu, xixtu eta orroen artean *interroatu* zuten. Muthil ttikia, ikare daldaretan oraino, ororen kondatzerat agertu zen, eta ezin deus ukatu zuen Murillok; han berean xirxikatu nahi izan baitzuen jendetze harek guziak.

Baionarat, *bide-zaharrez* ereman zuten gero, segidan, eta bide ...ian, karrosa-barnean, españolez bere buruarekin ari aditu zuten jandarmek. Errabia gorrian zen, zeren ez zuten *Donianeko bidetik* ereman Baionarat! "Han izanen bainuen behar den laguntza guzia!"

Espantuka ari othe zen Murillo, ala egiazki lagunak igurikatzen othe zituen Donianeko bidean? Nik ez dakit... Handik laster, Baionako *Glacis*etan lephoa moztu zioten.

* Zohala = qu'il aille.

**1. UKAN: Potentiel Imparfait. O.S**

Nik nukeen = je pouvais l'avoir
Hik hukeen = tu pouvais l'avoir
Zuk zinukeen = vous pouviez l'avoir
Harek zukeen = il pouvait l'avoir
Guk ginukeen = nous pouvions l'avoir
Zuek zinuketen = vous pouviez l'avoir
Heik zuketen = ils pouvaient l'avoir

## (III) ADITZ IKASKUNTZA

31. Zabilana — 32. Ez nakike
33. Ukan balu — 34. Eman zitzaion.
35. Erran zezoten — 36. Ethor zitezen

**31. IBILI. Indicatif Imparfait**

Ni nindabilan = Je marchais
Hi hindabilan = Tu marchais
Zu zinabiltzan = Vous marchiez
Hura zabilan =
Gu ginabiltzan =
Zuek zinabiltzaten =
Hek zabiltzan = etc.

**32. JAKIN. Conditionnel. Objet singulier**

Nik nakike = je saurais
Hik hakike = tu saurais
Zuk zinakike = vous sauriez
Harek lakike = il saurait
Guk ginakike = nous saurions
Zuek zinakikete = vous sauriez
Heiek lakikete = ils sauraient

**33. UKAN. Suppositif. Eu. 1ère forme Obj. Sing**

Nik banu = si je l'avais
Hik bahu = si tu l'avais
Zuk bazinu =
Harek balu =
Guk baginu =
Zuek bazinute =
Heiek balute = et.

Banitu = si je les avais. Bazinitu = si vous les aviez. Balitu = s'il les avait. Baginitu = si nous les avions. Bazinituzte, balituzte